AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

1540

AGINDUA, 2012ko martxoaren 20koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko eta 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduen bitartez araututako lehiaketa espezifikoen harira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 255/09, 242/09, 120/09, 699/09, 137/09, 156/09, 1221/09, 119/09, 1159/09 eta 1610/09 epaiak betearazteko den 2011ko maiatzaren 13ko Aginduan araututako lehiaketan lanpostuak esleitzeko dena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2011ko maiatzaren 16an, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko maiatzaren 13ko Agindua argitaratu zen. Horren bitartez, Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko eta 2008ko urtarrilaren 28ko Aginduen bitartez araututako lehiaketa espezifikoen harira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 255/09, 242/09, 120/09, 699/09, 137/09, 156/09, 1221/09, 119/09, 1159/09 eta 1610/09 epaiak betearazteko agintzen da.

Aipatutako maiatzaren 13ko Agindu horrek, epaiak betearaziz, erabakitzen du Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko eta 2008ko urtarrilaren 28ko aginduen bidez deitutako lanpostuak zabaltzea, I-A, I-B, II-A, II-B, II-C eta III-A berariazko osagarria duten lanpostuak betetzeko lehiaketa espezifikoetan. Lanpostu horiei buruzkoak dira 255/09, 242/09, 120/09, 699/09, 137/09, 156/09, 1221/09, 119/09, 1159/09 eta 1610/09 epaiak eta II. eranskinean jasota daude.

Balorazio Batzordearen 2012ko martxoaren 13ko Erabakiaren bitartez, deialdiaren xedeko lanpostuei buruzko behin betiko proposamena Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari aurkeztea erabaki zen.

Horregatik guztiagatik, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1.j) artikuluan ematen zaizkidan eskumenez baliatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ogasun eta Herri Administrazioko sailburuaren 2007ko azaroaren 21eko eta 2008ko urtarrilaren 28ko aginduen bitartez araututako lehiaketa espezifikoen harira Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 255/09, 242/09, 120/09, 699/09, 137/09, 156/09, 1221/09, 119/09, 1159/09 eta 1610/09 epaiak betearazteko agintzen duen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko maiatzaren 13ko Aginduak araututako lehiaketan lanpostuak esleitzeko onartzea.

Bigarrena.– Lanpostuak jabetzan hartzeak 2009ko maiatzaren 18ko eraginak izango ditu.

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, berau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal da bi hilabeteko epean, Agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 20a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

ESLEITUTAKO LANPOSTUEN BEHIN BETIKOK ZERRENDA
LISTADO DEFINITIVO DE PUESTOS DE TRABAJO ADJUDICADOS

Eskatzailearen Izena Nombre del Solicitante	Kidegoa Cuerpo	Lanp. Puesto	Lanpostuaren Izena Denominación Puesto	Dot Dot	Saila/Erakundea Departamento/Org.	Adm.Egituraren atala Centro Orgánico	Lan-egoitza Destino	Puntuaz Puntuac	Esleip.Zer. Mot.Adjud.
ETXENIQUE JAUREGUIBEITIA, GEMMA	A01EU	511072	TURISMO-KOORD. COORD. TURISMO	1	IND BERRIK MERK TUR IND INNOV COMER TURI	ARABAKO LUR. ORDEZ. DELEG. TER. ALAVA	VITORIA-GASTEIZ	208,140	PU
GUINEA ULIARTE, JOSE RAMON	A02EU020	511122	O. P. IK. EB. AR AR. R. A PL., IN.EV. SA.	3	OSASUN ETA KONTSUMO SANIDAD Y CONSUMO	BIZK. LUR.-ZUZEN. DIR. TERR. BIZK.	BILBAO	233,100	PU
IBAÑEZ PEREZ DE ARENAZA, ENRIQUE	A02EU024	510932	LUR. ANTO. ARLO-ARD. RESP. ÁREA ORD. TE.	3	ING.,LURR.P,NEK,ARR. MEDIO AMBIENTE, P.TE	LURR.ANTOLAMEND.ZUZ. DIR. ORDEN.TERRIT.	VITORIA-GASTEIZ	198,152	PU
MORENO DIEZ, LUIS MARIA	A02EU010	510130	EB. PO. FI. FU. TEK. T. PO. FO. DE FI. UE	6	EKON. ETA OGASUN ECONOMIA Y HACIENDA	EKON.PLANGIN.ZUZEN. D.ECONO.Y PLANIFICA.	VITORIA-GASTEIZ	255,720	PU
VALLEJO AURRE, MIGUEL ANGEL	A02EU074	510541	KONTABI. ARLO-ARD. RESP. ÁREA DE CONTA.	3	EKON. ETA OGASUN ECONOMIA Y HACIENDA	EKON. KONTROL. BUL. OFIC.CONTROL ECONOM.	VITORIA-GASTEIZ	199,216	PU

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2012ko martxoaren 30a, ostirala
66. zk.